

Euskal AEko berrikuntza teknologikoko jardueretarako guztizko gastua %8,8 hazi da 2006an

Enpresa berritzaileen %19k patenteren bat edo bestelako babes-metodoren bat erabili du asmazio edo berrikuntzetarako.

2006. urtean zehar, enpresek 2.352 milioi euroko gastua egin zuten teknologia berritzeko jardueretan. Gastuaren zenbatekoa %8,8 igo da aurreko urtearen aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Gastu hori BPGren %3,8 da. Berrikuntzarako behar diren jarduera garrantzitsuenen artean banatuz gero, honako hauek nabarmentzen dira: barruko I+G (%38,6); makinak eta ekipoak erosteko gastua (%37,4); kanpoko I+G %15,6. Gainerako jardueretarako %8,4 geratzen da.

Urtez urte hazi egiten da berrikuntzako gastua, baina horretan aritzen diren enpresen portzentajeak berdintsu dira. 2004-06 aldian enpresen %16,6 izan ziren berritzaileak Euskal AEn, guztira 29.880 enpresa. Enpresa berritzaileetat hartzen dira merkatuan produktu berriren bat (ondasuna edo zerbitzua) edo asko hobetutako produkturen bat sartu dutenak (%5,8 2006an), edota establezimenduaren baitan prozesu berriren bat edo asko hobetutako prozesua sartu dutenak (%15,1).

Ehuneko horiek %32,7raino iristen dira, 10 langile edo gehiagoko enpresak bakarrik kontuan hartuta. Enpresa horien artean, produktua eraberritu dutenak %14,4 izan dira, eta prozesua eraberritu dutenak %27,9.


1. taula: Enpresa berritzaileak eta berrikuntzako jardueretako gastua aldiaren arabera

Unitatea: milioi eurotan eta enpresen %tan

	Guztira				10 langile edo gehiago			
	2004- -2006	2003- -2005	2002- -2004	2001- -2003	2004- -2006	2003- -2005	2002- -2004	2001- -2003
Euskal AE	16,6	16,9	16,8	16,5	32,7	33,3	31,9	32,1
Lurralde historikoa								
Araba	15,7	15,1	13,6	12,8	34,3	33,8	31,9	29,7
Bizkaia	17,1	17,6	17,5	16,0	30,5	32,4	30,1	30,9
Gipuzkoa	16,3	16,5	17,0	18,7	35,3	34,3	34,6	35,1
Berrikuntzako gastua	2.352,2	2.161,7	2.010,2	1.836,0	1.829,7	1.677,8	1.463,6	1.472,6

Iturria: Eustat

1. grafikoa: Berrikuntzako gastuaren banaketa jardueren arabera, 2006an (%)



Iturria: Eustat

2004-2006 aldian, produktu-berrikuntzak negozio-zifra osoan duen eragin ekonomikoa %25,3koa da

Produktu berritzaileek negozio-zifra osoan duten batez besteko eragin ekonomikoa %25,3koa da produktua egiten duten enpresetan. Aldatu gabeko produktuen edo pixka bat aldatutakoen eragin ekonomikoa, ordea, gainerako %74,7koa da. Produktu-berrikuntza enpresarako izateaz gain merkaturako ere baldin bada, eragin ekonomikoa %13,6koa da.

10 langile edo gehiago dituzten enpresetan ehuneko horiek pixka bat aldatzen dira, eta produktu berrien edo dezente hobetuen batez besteko eragina %23,7koa da, negozio-zifraren gainean. Produktua merkaturatu ere berria bada, batez besteko eragin ekonomikoa %8,7da.

Enpresa berritzaileen %27,6k finantzaketa publikoa jasotzen du. Ehuneko hori %47,4ra iristen da 10 langile edo gehiagoko enpresetan

Enpresa berritzaileen %27,6k nolabaiteko finantza-laguntza publikoa jasotzen du jardura berritzaileetarako. Laguntza horren jatorriari behatuz gero, Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da, laguntza guztien %20,3rekin. Ehuneko hori gutxituz doa beste administrazio batzuen laguntzei dagokionez. 10 langile edo gehiago dituzten enpresetan, %47,4k laguntzak jasotzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritza da, halaber, enpresarik gehien finantzatzen duena. Zehazki, enpresen %36,2.

Berrikuntzarako lankidetzari dagokionez, esan beharra dago ia ez dagoela lankidetzarik establezimendu txikienetan. Soilik berrikuntzaren bat izan duten establezimenduen %6,9k sinatu du berrikuntza-jardueretako edo I+Gko lankidetzak hitzarmenen bat.

2. taula: Finantzazio publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileak, finantzazioaren jatorriaren arabera 2004-2006. (%)

	Unitatea: enpresa portzentajea	
	Guztira	10 langile edo gehiago
Finantzaketa publikoa jasotzen dute hauetatik	27,6	47,4
Tokiko administrazioak	5,3	6,0
Foru aldundiak	8,2	14,3
Eusko Jaurlaritza	20,3	36,2
Administrazio zentrala	3,1	12,9
Europar Batasuna	5,8	5,4

Iturria: Eustat

Berrikuntzaren bat egin duten 10 langile edo gehiagoko establezimenduetako %23,7tan lankidetza ere izan da. Tamaina horretako establezimenduetan, lankidetza honako hauekin gertatu da: zentro teknologikoekin (%54,3); ekipoen, materialaren... hornitzaileekin (%40,7); enpresa bereko beste establezimendu batzuekin (%41,3); Bezeroak (%32,2), eta Unibertsitate nahiz beste institutu batzuekin (%30,4).

Faktore jakin batzuek teknologia-berrikuntza oztopatzen dutela uste du enpresen erdiak

Era berean, enpresen erdiak, %53,8k hain zuzen ere, uste du teknologia-berrikuntza zailtzen duten faktoreak badirela. Faktore horien artean, berrikuntzen kostu handiegiak (%41,7) eta gehiegizko arrisku ekonomikoak (%39,9) nabarmentzen dituzte enpresek. 10 langile edo gehiagoko enpresen artean, ehuneko hori %64,1era iristen da, eta oztopo berak nabarmentzen dituzte.

3. taula: Enpresak, berrikuntza oztopatzen duten faktoreen arabera 2004-2006.(%)

Unitatea: enpresa portzentajea		
	Guztira	10 langile edo gehiago
Berrikuntzari traba egiten dioten faktoreak daude	53,8	64,1
Faktore ekonomikoak:	45,6	54,1
.- Gehiegizko arrisku ekonomikoak	39,9	40,9
.- Berrikuntzako kostu handiak	41,7	48,3
.- Finantzaketa-iturririk ez	30,1	34,7
Barruko faktoreak:	35,6	47,9
.- Erakundearen zorrotasunak	13,5	21,5
.- Langile gaiturik ez	23,4	27,8
.- Teknologiai buruzko informaziorik ez	20,2	24,6
.- Merkatuei buruzko informaziorik ez	18,9	25,4
Beste faktore batzuk:	30,7	37,2
.- Arauek malgutasun urria dute	20,3	23,8
.- Bezeroek sentikortasunik ez	23,3	26,4

Iturria: Eustat

Azkenik, 2004-2006 aldian, aipatzekoa da enpresa berritzaileen %19k patenteren bat edo bestelako babes-metodoren bat erabili duela asmazioak edo berrikuntzak babesteko. Aldi horretan, enpresen %1,5ek eskatu zuen patenteren bat bere establezimenduetan egindako asmakuntza edo berrikuntza babesteko, eta enpresen %2,2k patenteren bat zuen indarrean 2006. urtearen amaieran. Bestelako babes-metodoen gainean, enpresa berritzaileen %18,5ek erabili du baten bat aipatu aldian. Metodo horien artean aipatzekoak dira modeloen erregistroa, fabrika-markak, egile-eskubideak etab.

Ehuneko horiek igo egiten dira 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileak bakarrik hartzen badira kontuan. Zehazki, enpresa berritzaile horien %28,4k patenteren bat edo bestelako babes-metodoren bat erabili du aldi horretan; %6,6k patenteren bat eskatu du; eta %10,9k patenteren bat indarrean zuen 2006ko amaieran. %25,6k beste metodoen bat erabiltzen zuen.

Ohar metodologikoa: EUSTATEk egindako Teknologia-Berrikuntzaren Inkesta edozein tamainako eta jardueraren edozein sektoretako (lehenengo sektorea izan ezik) Euskal AEko enpresei, herri administrazioei eta etxeko zerbitzuei zuzentzen zaie. Inkestaren helburua, enpresek teknologia-berrikuntzarako gauzatzen dituzten jardueri buruzko informazioa ematea da. Inkestak Euskal AEko 3.400 establezimendutako eredu-lagin bat hartzen du oinarri gisa.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose Miguel Escalada

Tlf:+34-945-01 75 96 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es